

KONTROL MOZIOA

Intxaurrondo Ikastola inguruko mugikortasuna dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urriaren 20an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun Intxaurrondo Ikastolak 313 ikasle ditu. Horietako askok, haien familiarekin eta baita irakasleak ere bizikletaz egiten dute ibilbidea ikastola arte.

Orain urte bete, bizikletentzako aparkaleku berriak jarri ziren ikastola parean.

Baina bizikletaz doazenak, ezin dira bidegorriz iritsi ikastolara eta azken zatia, Zarategi Pasealekuan errepidean zehar egin behar dute. Ikastolan sarrera eta irteera ordutegian egoten den mugimendu guztiarekin, oinez, bizikletaz zein autoz, etengabe arrisku egoerak suertatzen dira. errepidetik bizikletaz joaten diren haurrentzat.

Bestalde, iazko maiatzean, Zarategi pasealekuko 63 zenbaki inguruan, Pablo Soroazabal biribilgunetik gertu dagoen zebrabideari buruz galdetu genuen. Zebrabide hori haur eta guraso ugarik erabiltzen dute bertatik gertu dauden eskoletara eta *AransGiren* egoitzara joateko.

Bere garaian azaldu bezala, zebrabidea ez da ondo ikusten, gertu, autobus geltoki bat dago eta gainera maldan dagoenez autoek batzuetan abiadura hartzen dute errepide horretan.

Udal Gobernuak, bertan neurriak hartuko zituela aipatu zuen, baina oraindik ere, zebrabideak egoera berean jarraitzen du eta honi guztiari buruz galdetu genuen urriko batzordeetan.

Ikastolara bizikletaz iristeko gaiari eta bidegorriari dagokionean, zinegotzi ordezkariak aipatu zuen bidegorri bereizi hori ez dagoela PMUSean jasoa, baina bai bizikletaren plan integralean, Pablo Sorozabal eta ikastola arteko bizikleta konexioa egitea jasotzen du. Hala ere, eremu horretan ezer egin aurretik azterketa zabalagoa behar dela erantzun zuen eta ez bakarrik bizikletari begiratuta.

Zarategiko zebrabideari dagokionean, oraindik jarraipen puntu bezala identifikatua dagoela aitortu zuen eta hortaz ezagutzen zutela arazoa egon zitekeela eremu honetan. Marra etena marraztuta dagon arren, eta horrek autobus geltokian geldirik dagoenean, autoek autobusa aurreratzea saihestu arren, askotan bertatik pasatzen diren autoen abiadura azkarra da, eskola sarrera eta irteera orduetan auto kopurua handia dago eta zebrabidea ez da ondo ikusten.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Pablo Sorozabal plazatik Intxaurren Ikastolaraino doan Zarategi Pasealekuan bizikletentzako gune segurua jarri dezan.
2. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Zarategi Pasealekuko zebrabidean autoen abiadura murrizteko eta zebrabide beraren ikusgarritasuna bermatzeko neurriak hartu ditzan.

Donostian, 2025eko urriaren 24an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia